

Año LXXXIV. urtea

285 - 2023

Enero-abril
Urtarrila-apirila



Príncipe de Viana

SEPARATA

Hogeita hamar liburu
2022koak

Ángel Erro Jiménez

Sumario / Aurkibidea

Príncipe de Viana

Año LXXXIV · n.º 285 · septiembre-diciembre de 2023
LXXXIV. urtea · 285. zk. · 2023ko urtarrila-apirila

CULTURA Y DIVULGACIÓN CIENTÍFICA KULTURA ETA DIBULGAZIO ZIENTIFIKOA Gurutze Pérez Artieda (coord./koord.)

Presentación / Aurkezpena
Gurutze Pérez Artieda

11

COMUNICACIÓN DE LA CIENCIA: HISTORIA, MODELOS Y ESTRATEGIAS / ZIENTZIAREN KOMUNIKAZIOA: HISTORIA, EREDUAK ETA ESTRATEGIAK

Atención pública a la ciencia 1820-2010: un panorama *longue durée*
Martin W. Bauer

29

Comunicación científica en contextos organizacionales: hacia un «giro
organizacional» en la investigación sobre comunicación científica
Mike S. Schäfer, Birte Fähnrich

57

Historias científicas como cultura: experiencia, identidad, narrativa
y emoción en la comunicación pública de la ciencia
Sarah R. Davies, Megan Halpern, Maja Horst, David A. Kirby,
Bruce Lewenstein

79

CULTURA CIENTÍFICA NAVARRA: ENTIDADES Y ACCIONES DE DIVULGACIÓN / NAFARROAKO KULTURA ZIENTIFIKOA: ERAKUNDEAK ETA DIBULGAZIOKO EKINTZAK

El Planetario de Pamplona: treinta años de cultura científica en Navarra
Javier Armentia Fructuoso

101

Divulgación y cultura científica desde el Museo de Ciencias
Universidad de Navarra
Ignacio López Goñi

111

Sumario / Aurkibidea

SciencEkaitza. Un puente entre cultura, ciencia y sociedad Paula Noya López	127
La divulgación científica en la Universidad Pública de Navarra. La Unidad de Cultura Científica Iranzu García Iriarte, Susana Irisarri	145
Cátedra Mujer, Ciencia y Tecnología de la UPNA Patricia Aranguren Garacochea, Edurne Barrenechea Tartas, Leyre Catalán Ros, Silvia Díaz Lucas, Aránzazu Jurío Munarriz, Alicia Martínez Ramírez, Nora Millor Muruzabal, Marisol Gómez Fernández, Idoia San Martín Biurrun	159
Una década de divulgación científica no institucional en Navarra (2012-2022) Joaquín Sevilla Moroder	179
LOS TRABAJOS Y LOS DÍAS DEL AÑO 2022 / 2022ko LANAK ETA EGUNAK Tesis doctorales sobre temática navarra de ciencias humanas, sociales y jurídicas, leídas en 2022 (Según la Base de datos Teseo del Ministerio de Educación)	189
Autores navarros en castellano, año 2022 Mikel Zuza Viniegra	193
Hogeita hamarliburu 2022koak Ángel Erro Jiménez	197
Celebrar lo insólito. Los Encuentros de Pamplona 72-22 Mireya Martín Larumbe	203
Que cuenta de los quehaceres y faenas acontecidas en la forma audiovisual Marga Gutiérrez Diez	211
Noticias sobre etnografía, folclore y cultura tradicional David Mariezkurrena Iturmendi	223
Un museo universitario Yolanda Cagigas Ocejo	231

Sumario / Aurkibidea

I Congreso Internacional Historia con Memoria en la Educación César Layana Ilundain, José Miguel Gastón Aguas	241
Portal Digital de la Cultura Navarra Itziar Arrieta, Juanjo Asa, M. ^a Camino Barcenilla, Asun Maestro	249
Entrevista a Pedro Salaberri Alicia Ezker Calvo	261
Discurso pronunciado por Pedro Salaberri en la entrega del Premio Príncipe de Viana de la Cultura 2022 Pedro Salaberri	275
Currículums	279
Analytic Summary	287
Normas para la presentación de originales / Idazlanak aurkezteko arauak / Rules for the submission of originals	291

Hogeita hamar liburu 2022koak

Ángel Erro Jiménez

Escritor / Idazlea

angerro@yahoo.es

DOI: <https://doi.org/10.35462/pv.285.13>

Jon Abril Olaetxea, *Isildutako eskuak: Emakume langileak gerra ondoko Euskal Herrian*. Tene Mujika saria. (Elkar)

«Dokumental arima duen liburua da [...]. Garai hartako hainbat emakumeei aho-tsa eman die, industrian lanean edo etxetik kanpoko ogibideetan zebiltzala lekuko bezala bizi izandakoaz mintza daitezten [...]. Hamaika lanbide dira guztira hautatutakoak (papergileak zirenetik, kremlera lantegian edo General Eléctrica Españolan zeudenetara), Euskal Herriko hainbat eremuko industria nolakoa zen testigantza jasotzeko» (Aitor Francos, *Bilbao aldizkaria*).

Lur Albizu & Eraitz Saez de Egilaz Ramos, *Gureak ere badira: Desira, boterea, epika* (Txalaparta)

Iparroratza bildumaren 6. aldea da hau. Gazteen konpromisoa, etorkizuna eta halakoak azaldu eta problemizatzen dituzte egileek, afektuetan eta kolektiboan arreta jarri eta eraldaketa sozialerako desira, boterea eta epika ardatz hartuta.

Jon Alonsoren *Amaiur bat urtero* (Gaztelu elkarte)

Film handi bat egiten ari dira Baztanen. Amodiozko istorio gartsu bat da, orain dela 500 urte setiatua izandako Amaiurko gazteluan, Nafarroako erresuma menderatzeko gerran. Maitaleen desira eta ustekabeko heriotza bat dira Jon Alonsoren nobela berri hau azkartzen dutenak.

Amaia Apalauzak itzultako Irene Pujadasen *Puskak* (Igela argitaletxea)

Egunerokoan edonori gertatzen zaizkionak dakartzate hogeita bat istorio hauek: puskatzen diren jaioberriak, merendolak hil hurrenekin, euli matazak dantzan, amaren atun-latak eta tomate-poteak, sudur berria duen senar ohia, edan eta elkar larrutzeko geratzen diren señorak herrixketatik ihesi doazen bandalo alegerak...

Pakita Arregi Goenaga, *Joanes Etxeberri andereñoaren erresidentzia* (Txertoa)

Joanes Etxeberri Andereñoen Erresidentziak 1964-1965 ikasturtean hasi eta 1972-1973an bukatu zen. Bitarte hartan, han eta hemen sortzen ari ziren ikastolak irakaslez hornitzeko bene-benetako harrobia izan zen. Liburu honetan, Pakita Arregik, Andereñoen Erresidentziako zuzendari izan zenak, ematen digu ekimen haren berri.

Jon Arretxe, *Lyrical Garaia* (Erein argitaletxea)

Toure dekektibe etorkinaren beste abentura bat, bederatzigarrena. Bilbora itzultzen denekoa. Berririo baztertuen munduan girotu eta sakonduko du (prostituziorako lege berria, gentrifikazioa prozesua...).

Garazi Arrula Ruizek itzultako Sylvia Plathen *Beirazko kanpaia* (Txalaparta)

«Garazi Arrulak, ordea, bere eleberri bakarra euskaratu berri du, ezizenpean argitaratu zuena 1963an. Euskara bikainean eta Plathen estilo gordinari eutsiz, altxor txiki bat da euskarara ekarritako munduko literaturaren artean» (Irati Majuelo, *Berria*).

Íñigo Astiz, *Kixkur: Pinttoren arreba*, Mikel Valverdek ilustratuta (Elkar)

Pinttok, abestiko Pintto famatu horrexek bazuen arreba txiki bat Kixkur izeneko. Hau da bere istorioa.

Itziar Diaz de Ultzurrun: Kae Tempest-en *Antzinako berri-berriak* (Igela)

«Kae Tempestek [...] besteak beste, Ted Hughes, New Yorkeko poesia saria, jaso zuen *Antzinako berri-berriak* liburuarekin, eta orain gure eskuetara dakar Igela argitaletxeak Itziar Diaz de Ultzurrunek ondutako edizio elebidunean. Epopeia forma hartzen du Tempesten lanak honakoan: poema epiko luze bakarra da, heroi eta jainko-jainkosen ekintza gogoangarriak gorai patzen dituen» (Irati Majuelo, *Berria*).

Aingeru Epaltza, *Erretzaile damutuen konpainia* (Elkar argitaletxea)

«Genero beltzaren araei jarraiki eraikitako nobela dugu Saraguetaren abentura berria. Antiheroiazen paperean are hondoratuago ageri da protagonista, ustez bi-

zitza profesionaletik aparte [...]. Iruñeko Arrosadia auzoan bizi da Edu, etorkinez betetako auzo proletarioa berau [...]. Saraguetak laster ikusiko du bere burua kontu zikinagoetan katramilatuta, islamiar terrorismoa, azpijoko politikoa eta ustelkeria uztartzen dituen koktel kargatu samarrean» (Asier Urkiza, *Berria*).

Angel Erro, *Poema liburu bat –irakurtzeko jarraibideak–*. Blas de Otero – Ángela Figuera Poesia Saria. (Erein argitaletxea)

«41 olerki bildu ditu burlatarrak bere ibilbideko hirugarrena den poema-bilduma honetan. Hertsiki gidaliburu ez dugun arren, poesia eta literaturarako gonbita dira orriok: esplizituki ere aurkeztu eta hezurramitzen dira forma eta baliabide literarioak, bestelako arte adierazpideak hurbiltzen dira hitzetara, eta birformulatzearen eta berrinterpretatzearen xendrak arakatzen dira» (Maddi Galdos Areta, *Argia*).

Estitxu Fernandez Maritxalar & Erika Lagoma Pombar, *M. ama* eme* ume**. Tene Mujika saria. (Elkar)

«Ama adina ama izateko modu badira: ohi baino zaharrago ama izatea erabakitzen dutenak, ama izatea inoiz erabaki ez zutenak, adopzioko haurrak dituzten ama-ordeak, bikotekidea erditu arren ama direnak... Liburuak dena jartzen du zalantzan» (Jon Martin-Etxebeste, *El Correo*).

Ekaitz Goikoetxea, *Balio erantzia* (Balea zuria)

«Aforismoa hitzaren erabilpen zuhurra da, zuhurra eta laburra. Liburu honek isiltzera gonbidatu nau, Goikoetxearen *Balio erantziak* isiltasunera eraman/ekarri nau [...]. *Balio erantzia* liburuak izugarri bete nau. Gogoa bete ahala hustu naiz» (Mikel Asurmendi, *blogak.eus*).

Izaskun Igoa Jaimerena, *Hotza bazkatzen*, DK V. Poesia Saria (Balea Zuria)

«Aurretik literatura munduan ibilia izan arren hauxe dugu Zigakoak argitaratutako lehen olerki-bilduma, Donostia Kultura V. Poesia Saria eman diona. Poema bakoitzak liburuaren ardazten duten hamar galderetako bati ihardesten dio, erantzun irmo baino, galdera berrien sortzaile izaki» (Maddi Galdos, *Argia*).

Ana Jaka, *Marimatrakak – Ikimilikiliklik!*, Iosu Mitxelenak ilustratuta (Elkar)

Bi istorio jasotzen ditu, magia eta oporrak gaitzat hartua: magiak liluratuta hasiko dira bi ahizpak jolasean; lagun guztiek, halere, ez dute magia gogoko izango.

Josu Jimenez Maia, *Hitzen hasperenak* (Maiatza)

Maite Ramosen pinturekin hitzen garrantziari lotuz biziaren arnasa ehuntzen den arnasa eta hasperenak elkartuz.

Josu Jimenez Maia, *Zuibitsua: idazlumari jarraiki* (Dakit argitaldaria)

Euskaraz egindako kamishibai, haiku eta haibun izeneko teknika japoniarrak maite edo ezagutu nahi dituenak aurkituko du zerikasirik liburu honetan; euskal artisauek Soetsu Yanagi handiaren hainbat ekarpen ezagutuko dituzte, zer pentsaturik ematen dutenak.

Uxue Juarez Gaztelu, *Kai handia* (Erein)

Gazteentzako kontakizun honetan azaltzen da nola, batzuetan, pertsonak, izan pirata nahiz ez, bat egiten duten eta sostengua ematen dioten elkarri, sortzeraino sare egoskor, sendo eta irmo bat, eta nola protagonista, Oona Langstrump, egin zen pirata.

Alberto Ladron Arana, *Ilunpeko zelataria* (Elkar)

Iruñea, 1947ko Gabonak. Gosea eta tristezia darizkio giroari, pobrezia eta zikin usaina dago karriketari, zapalketa eta beldurra jendearen begiradetan. Gaizkiaren hats ustela eta naturaz gaindiko indarren esku izoztua topatuko ditu irakurleak eleberri beltz honetan, egilearen ohiko *thrilleren* aldean fantasiatzeko ukitu nabarmena baitu istorioak. Horrez gain, baina, idazlearen marka diren ezaugarriak nagusitzen dira: ekintza ugari, solas biziak, jakin-min eutsiezina eta erritmo burtzoragarria.

Haritz Larrageta, *Anna Kopek eta matrioxken kondaira* (Erein)

Uxueren eta Jokinen ama kazetaria da eta, hori dela eta, bidaiatzea tokatzen zaie maiz. Baina, honako honetan, ezohiko abenturak biziko dituzte eta Moskuko kaleetan arriskuari aurre egin beharko diote.

Hasier Larretxea, *Hezurrezko kaiolak* (Gaztelu-Maya Elkarteak)

«Ohiko argialetxeetatik kanpo ekoiztutako edizio honetan hezurrezko kaiok mintzo da Larretxea: hasieran oztopo izandako mugez, baina gerora armadura bilakaturako egitura gogorrez. Diseinu aldetik mimoz atondutako liburua da. Urrezko konstelazioak dakartza azalean eta balio handiko ilustrazioak mamian. Memoriaz, eskuez, lotsaz, absentiak eta konstelazioez dihardu liburuak. Poemen irudikapen grafikoa Juan Angel Perotxenak egin du grafitozko arrastoz egindako trazo organikoekin» (Jon Martin-Etxebeste, *El Diario Vasco*).

Santi Leoné, *Liztor mutanteak* (Susa)

«Hamar narrazioz osatutako liburua [...], ipuin laburrak dira, ustez bata bestearekin loturarik gabekoak [...]. Nagusiki bi gairen inguruan ardatzen dira kontaktizunak: giza harremanen gorabeherak –bikote harremanen tirabirak, batik bat– eta bizitza eta fikzioaren arteko erlazioa. Zaputza, damua, koldarkeria eta etsipena bezalako sentimenduek bizi dituzte pertsonaiak [...]. Hamar ziztada, batzuk besteak baino ezten zorrotzagokoak» (Asier Urkiza, *Berria*).

Antton Luku, *Garazin antzerki 3* (Maiatz)

Hogei urtez Garaziko lizeoan ikasleekin egindako antzerkigintza kristaltzen da liburuan, lau obra osorik agertuz.

Xabier Olarrak itzulitako James Joyceren *Ulises* (Igela)

Zailtasunaren ospe hori berekin izan du *Ulisesek* argitaratu zen une beretik. Ora- in, argitalpen ohardun honi esker, irakurle euskaldunak bidea leundua eta zenbait korapilo askatuak aurkituko ditu, hainbat ataka gaitzetan onik ateratzeko.

Ernesto Prat Urzainki & Jaione Dorai Oskotz, *Bestaldean: euskal iheslari politikoen bizipenak* (Txalaparta).

Liburu honek, zenbait iheslariren lekukotzaren bitartez, hamarkadatan luzatu den eta oraindik amaitu ez den deserriaren bidaian murgiltzeko tresna izan nahi du.

Fernando Reyk itzulitako Pier Paolo Pasoliniren *Kale gorriko umeak* (Igela)

«1955ean argitaratu zuen Pasolinik eta Igelaren eskutik Fernando Reyk euskara- tuta iritsi zaigu 2022an. Gibelsolasa Harkaitz Canok idatzi dio beti bezain zorrotz. Eleberriak [...] Bigarren Mundu Gerraren ondorengo hondakinen artean kokatzen gaitu begirale huts» (Ibai Atutxa Oredañana, *Argia*).

Castillo Suarez, *Mel eta ehun goibela*. Morkotsek ilustratuta. (Denonartean)

Elurra ausarki egiten zuen toki batean, bazen behin inuit bat Mel deitzen zena. Egun batean, elurra hasi zuen inoiz baino gogo handiagoarekin eta Melek pentsatu zuen iritsi zela joateko eguna. Bere puskak bildu, eta abiatu zen eguzkiaren atzetik.

Castillo Suarez, *Elurra elurraren gainean* (autoedizioa)

«*Elurra elurraren gainean* berezia da momentu berezietarako eta pertsona berezien inguruan sortutako testu bereziak biltzen dituelako» (Nerea Azurmendi, *Diario Vasco*).

Marikita Tambourin, *Bizirik iraun* (Maiatz)

Egileak Hego Euskal Herriko gizon batekin bizi izan dituen emazte baten bizipe- nak bildu ditu, gazte arokoak. Garai hartan euskara eta Euskal Herriak bizirauteko izandako zailtasunak azaltzen dira.

Asisko Urmeneta, *Amaiur! Libera state* (Erroa argitaletxea)

Komiki mutua, hitzik gabekoa, zeinean kontatzen den Amaiurko gudua.